

lea ko ibilbidea *

ingenio
&
natura

23 Km

www.leafbarra.com



GIDAREN ERABILERA / COMO USAR LA GUIA / COMMENT UTILISER LE GUIDE / HOW TO USE THIS GUIDE

En las últimas páginas están los textos en castellano
Dans les dernières pages, les textes sont en français
On the last pages, the texts are in English

IKURRAK

Lea Ibilbidea

Eskualdeko errepidea

Herri eta auzo bidea

Ibaia

Erreka

Hondartza

Padura

16* Interes-puntua

Puntu kilometrikoa

Zubia

Informazioa

Zerbitzuak

0>100

100>200

200>300

300>400

400>500

500>600

600>700

Autobusa

Gasolindegia

Farmazia

Dirua

Industrialdea

Eliza

Ermita

Atsedeen-gunea

Hondartza

Done Jakue bidea

Pentsioa

Hostala / Hotela

Landetxea

Albergea

Nekazal Turismoa

Kanpina

Taberna

Jatetxea



Bidean hemen agertzen den moduko altzairuzko «totem»a aurkitzen baduzu, gida kontsulta ezazu, eta lekuari buruz gehiago jakingo duzu.

Cuando encuentras un «tótém» de acero como este en el recorrido, consulta la guía y sabrás algo más sobre el lugar.

Quand vous trouvez un «tótém» d'acier comme celui-ci sur le parcours, consultez le guide et vous en saurez plus sur le lieu.

When you find a «totem» of steel as this one in the way, consult the guide and you'll know more about the place.

Erabilera eta portaera aholkuak: natura errespetatu, bereziki, basoko faunaren babes lekuak (bisoï euro-pearra) eta erreka ondoko landaredia. Oinezko eta bizikletentzako ibilbidea da, kontuan izan. Basoetako pistetan eta nekazaritza pistetan, arreta izan noizbehinka bertatik igarotzen diren ibilgailuekin.

Zailtasun ertaina. MIDE sistema: 2-1-1-3

Recomendaciones de uso y comportamiento: Respetad el medio natural, en especial las zonas de refugio de fauna silvestre (visón europeo) y la vegetación de ribera.

Es un itinerario peatonal y para bicicletas, tened precaución.

En pistas forestales y agropecuarias estad atentos a vehículos que ocasionalmente circulen.

Dificultad media. Sistema M.I.D.E.: 2-1-1-3

Recommandations d'usage et de comportement : Respectez l'environnement, spécialement les zones de refuge de la faune sauvage (vison européen) et la végétation de rive. C'est un itinéraire piétonnier et cyclable. Soyez prudents. Dans les pistes forestières et agricole oyez attentifs aux véhicules qui peuvent occasionnellement y circuler. **Difficulté moyenne: Système M.I.D.E.: 2-1-1-3**

Recommendations of use and behaviour: Respect the environment, especially the areas of refuge of woodland fauna (European mink) and the vegetation of bank. It's a footpath but an itinerary for bicycles too. Be careful. In the forestall and agricultural tracks be attentive to vehicles which occasionally circulat.

Average difficulty: System M.I.D.E.: 2-1-1-3





Patxadaz, oztopo edo aldats handiegirik barik ibiliko zareten bide honetan, bidelagun ixil izango gaituzu. Uraren gurgurioarekin batera, **Lea ibai zaharraren historia** kontatuko dizugu.

Lea ibaia laburra da. Laburra bezain bizia. Oiz mendiaren ipar isurialdean jaiotzen da bere emaria. Inguru hauetan eratu ziren gizakien lehen bizileku egonkorak. Orduetik **1.000 urte** baino gehiago igaro dira. Beste muturrean, Learen bokalean, erromatarren garaitik honainoko jardueraren aztarna arkeologikoak daude, deskubritzeko zain... Baina Lea Iba-rraren urrezko aroa **XVI eta XVIII** bitartekoa izan zen. Bertoko ingenio hidraulikoak, burdinolen produkzioa, ontziolak eta itsas-nabigazioa **Europako abangoardia** izan ziren.

Durante éste recorrido, por el que caminaréis tranquilamente sin grandes dificultades orográficas, os vamos a acompañar silenciosamente para contaros su historia, **la historia del viejo río Lea.**

Es corto pero intenso, sus aguas comienzan a fluir altas, en la vertiente norte del macizo del monte **Oiz.** Este lugar vio nacer los primeros asentamientos humanos estables de nuestro territorio. Son ya más de **1.000 años** los que han pasado.

En el otro extremo, en su desembocadura, también encontramos restos arqueológicos y noticias de su rica actividad desde tiempos de los romanos...


Pero sin duda fueron el **siglo XVI y el XVIII** los que marcaron el esplendor y la riqueza de la comarca. **Los ingenios hidráulicos,** la producción ferrona, los astilleros y la marinería fueron **vanguardia europea.**

Pendant ce parcours, à travers lequel vous marcherez sans rencontrer de grandes difficultés, nous allons vous accompagner silencieusement pour vous raconter son histoire, **l'histoire de la vieille rivière Lea.**

Cette rivière est courte mais intense, ses eaux commencent à couler du haut du versant nord du massif de la montagne **Oiz.** Ce lieu a vu naître les premières installations humaines stables de notre territoire. Cela se passait, il y a plus de **1000 ans.**

A l'autre extrême, à son embouchure, se trouvent aussi des restes archéologiques et des informations sur sa riche activité depuis la période romaine...

Mais ce furent, sans doute, les **XVIe et XVIIIe** siècles qui ont marqué la splendeur et la richesse de la région. **Les ingéniosités hydrauliques,** la production de marchandises ferreuses, les chantiers navals et la marine furent à **l'avant-garde européenne.**





During the course of this gentle walk along the banks of the river Lea, we are quietly going to accompany you to tell you some of its history, **the history of the old river Lea.**

This river is short but intense with its birth place on the slopes of north side of the massif of **Oiz.** Here also saw the first human stable settlements in which took place, more than **1000 years** ago. In the other extreme, at the mouth of the river, we can find archaeological remains and information about its rich activity from the Roman period...

But, undoubtedly, it was the **XIVth and XVIIIth** centuries which marked the splendour and the wealth of the region. **The hydraulic ingenuities,** the ferrous production, the shipyards and the navy were at the **European vanguard.**

«Errotaren alboan kalkulatu nuen munduak zenbat buelta eman behar duen» JOSEBA SARRIONAINDIA



Itsaso aldetik abiatuko gara, eta ibaian gora egingo dugu ibilbidea, goroldioen estalpean lotan dauden altxorren bila.



0 Km ISUNTZAKO ZUBIAn gaude, itsaso zabalari begira. Irudi freskagarria; postal erromantikoa izan daiteke gaur egun. Aintzina, **burdinoletako merkantzien aterabidea zen: Sevillara, Indietara, Europako Iparraldera... Balea** ehiztarien Kantauri duzu begibistan, Iparrereko itsaso hotzetaraino ailegatzen zen bakailao harrapaleku aberatsa ere bazena.


1* BOGA BOGA. XX. mendearen bigarren erdira arte erriberako aroztegien jarduera bizi-bizirik zegoen Learen bokalean. Boga Boga ontzia langintza horren adibide orijinala dugu. Itsasontzia barrutik bisita daiteke, bere eraikuntzako detailak ezagutzeko.



2* MARIERROTA. 1555ean eraikitako marea-erota, erreka errotak ordezkatu ahal izateko lehorte sasoietan. Marearen gorabeherekin ur-jauzia sorrarazten zen bertan, errota mugitzeko. Hurbildu, eta bere inguruan zehaztasun gehiago aurkituko duzue.



Haritz oker hori zortekoa izan da. Egurrezko itsasontziak era tradizionalen egiten zirenean horrelako enborrak erabili ohi ziren branka egiteko, ilustrazioan ageri den moduan.



Haritzaren zura benetan gogorra eta erriberako arotzeriarako aproposa da. Egon adi ibilbide osoan zehar, aingura bat markaturik daukaten zuhaitzak ikusiko dituzue. Horrek esan nahi du arbola hori itsasontzi baten egitura eraikitzeko izendatua egon zitekeela.

3* ZUBIETA JAUREGIA. Barroko zibilean, Bizkaia osoko eraikinik ederrena da. Adan de Yarza leinukoek eraiki zuten 1716an, Erdi Aroko orube baten gainean. Eraikina **Churriguera** arkitekturena izan



daitekeen arren, euskal estiloaren diskrezioaz jantzita ageri zaigu. Jauregiaren ondoan landatu zuten lehenengo **intsignis pinua (P. Radiata), Monterrey-tik ekarrita (AEB)**. Mende bat geroago Euskal Herriko kantauri isurialde ia osoa hartua zuen pinu mota horrek. Izan ere, XIX. mendean burdinola tradizionalak hondoa jo, eta basoen ordura arteko aprobetxamenduari beste alternatiba batzuk bilatu behar izan zizkionten.

Pinua haritzaren ordeaz. Ikusten denez, ibaia zen jarduera guztien ardatza. Uraren energiak eta pertsonen ingenioak Lea Ibarra abangoardiako bailara emankor bilakatu zuten.

4* HOSPITAL ZAHARRA. Barrokoa; 1632an eraikia. Baina bere balio bereziena ez da arkitektura soila (hori ere baden arren); bere funtzionaltasun aintzindaria baino.

Irakurri...

“Yten mando que en la villa de Lequeitio de la banda de Mendexa se funde dote y establezca un ospital en el qual se puedan socorrer amparar y curar hasta cantidad de cincuenta enfermos naturales de la anteiglesia de Mendexa y a falta de ellos lo sean de la villa de Lequeitio y de las demas Anteiglesias circunbezinas”

5* Egurrezko pasabide honen azpian ageri dena aintzinako **ERREGE BIDEA**ren jatorrizko galtzada da. Begira orain alboetako hormatxoei: Yarzaren aintzinako burdinolako burdin-zepa hondakinekin eginda daude. Bide honetatik ailegatu zen **Felipe III.a** Yarzaren zerbitzuak kontratatzeraz XVII. mendean, orrialde honetako grabatuak erakusten duen legez.

6* LARIZ OLETA OKINDEGIA. XVIII. mendea. Errota-okindegia honen barruan errotan eta okintzan aintzina erabiltzen zen makinaria eta tresneria gorde da. Labearen ilustrazioak erakusten duenez, **uraren indarra** uhalen eta engranajeen bidez pasatzen zen. Indar horri esker dinamo elektrikoa eta konporten mekanismoa ere mugitzen ziren.

7* BENGOLEA BURDINOLA. Bizkaiko burdinola garrantzitsuena izan zen. Garai hartan, Europa osorako burdinazko manufakturatuen hornitzaile nagusia **Bizkaia** zen, beste euskal lurraldeekin batera.

Bere itsasontzi eta armekin munduaren biran agintari ibili zen Europa hura... Irudikatu leku honen bizitasuna eta mugimendua garai hartan. Bai, XVIII. mendearen lehen erdian mundu osoko burdinola garrantzitsuena zena daukazue aurrean!

8* PEDRO BERNARDO VILLAREAL DE BERRIZ.

Lea Ibarren eboluzioan giltzarria izan den pertsonaia. Oraindik ere bagarenaren aintzindari. XVIII. mendea da; Ilustrazioaren hasiera.



Industrializazioaren lehen haziak erain zituen Villarealek. Aro barrokoaren I+G+la pertsonifikaturik. Zer edo zerengatik deitzen zioten 'novatore'. Nobleziako kide izan arren, gorteko kontuak baino nahiago izan zuen munduaren pulstua jarraitu. Euskal Herriaren aurrerapen teknologiko eta ekonomikoarengan eragin nabarmena izan zuen.

BASOAK benetako faktoriak ziren: arteak, burdinolak ikatzez hornitzeko; haritzak, mer-

kantziak Ameriketaraino eroango zituzten itsasontziak eraikitzeko; eta **lizar** zuzen-zuzenak pikak egiteko. Lizar sailak estu-estu landatzen zituzten, ahalik eta zuzenen eta altuen egin zitezten, argiaren bila. Kirten luzeekin eta burdina landuzko puntekin eraikiko zituzten infanteriak erabiliko zituen lantza luzeak. Baietz '**Flandriako pika**' ospetsua baso hauetan eta burdinola hauetan sortu, eta Lekeitioko portutik itsasoratu... Oraindik orain, inguruko basozain baten lanari esker, Bengoleako zubiaren inguruan, bide ondoan ikus dezakezue horrela antolatutako lizarditxo bat.

9* **ANGIZ: BURDINOLA-ERROTA.** Hemendik, Learen ezkerreko ertzean, zuhaitz artean kurika dituzu XV. mendeko industria eta bizileku multzoa. Dorrea, lehenengo bizilekua izango zena; bere ondoan Angiz Nagusi, baserri ederra. Hego-ekialdera begira eraikia dago, dinteldun atariarekin, eta mainelaren erdian zutabea du. Harantzago, burdinolaren eta errotaren aztarnak, bere kanale, andapara, estolda, presa, bidexka eta zubiekin... **Burdingintzaren ingu-**

ruan antolatutako bizi-modua izan zenaren harrizko ispiluak. Oraingoz, kontsolidatu gabeko hondakinak dira, teknika-rien eta agintarien arreta merezi dutenak, hala ere. Hala izan bedi.



10* **ANTZIOR ZUBIA.** Agiri zaharrek diote **1627**an uholak zubi hau eta beste batzuk bota egin zituela, hainbat arazo eraginez herritar eta garraiolariet. Ikusten duzuen hau uholde haren ondoren eraikia izango da seguruenik: hargintza lehorrez egina, begi bakarrekoa, gainalde tontordunarekin eta arkuan harlanduak dituena. Heldulekurik eta karelik gabe babes gutxi eskaintzen duen arren, bere eraikuntza arina bezain iraunkorra dela ikus dezakegu.

11* GAZTAINADIA/PRESAK.

Gaztainadian zehar zoaz orain, lasai. Zuhaitz eder baina ahaztua, gaztainondoa. Bere zura, baina, arotz, otzaragile eta armadoreentzako oso preziatua da. Bere fruituak, emankorrak eta garai hotz bezain gaitzetan salbamendurako jaki. Eta zer esanik ez dago bere udako gerizpe ederraz. Gaztainadian hainbat xomorro eta animaliak bilatzen dute gordeleku.



Presak hurrengo ingenio hidraulikoa datorrela diosku. Hemen eragiten da andapara hornituko duen ur jauzia. Arku bikoitzeko presa bat duzu hau (etzandako zubi bat bezalakoa); XVIII. mendean Lea ibaian garatu zuen lehenengoz teknologia hau **Pedro Bernardo Villareal de Berrizek**; gerora eta gaurdaino mundu osoan zabalduta den teknologia hidraulikoa da.

12* UBIDEA. Aintzinako ubide baten gainetik zabilta oinez, bai. Goikoerrota errota-burdinola



hornitzen zuen kanale luzean zehar. Benetan luzea eta konplexua da harriz eginiko ubide hau. Etengabeko ur hornikuntza bermatu behar zuen. XX. mendearen erdialdera arte egon zen martxan, eta bere **erabilpena arautua** zegoen **zor zen ubide modura**. Kanaletaren mantenimendurako pasabide bat ere bazuen berari loturik.

13* ARDOA ETA ARRAINAREN IBILBIDEA. GR-38.

Leako ingenio hidraulikoetan landutako burdingai gehienek **Gaztela** eta **Andaluziarako** bidea hartzen zuten. Itsasoa, baina, pirata eta kortzariorz josita zegoen; eta horregatik finkatu zen lehorreko bidea, seguruagoa zelako. Koroak aginduta, harrizko errepide-sarea eratu zen, merkantzia estrategiko hori guztia garraiatzeko (batik bat lanabesak eta armak). Itzulerako bidea Europako ehunak eta beste produktuk



bertora ekartzeko aprobetxatzen zuten. **Europarentzako armak** hemendik zihoazen, bai.

Arma zuriak eta suzko arma arinak infanteriarantzako; eta itsas armadarentzako kainoiak ere hemengo burdinoletan egin ziren, bide hauetatik garraiatuz. Lea, Artibai, Deba eta Ibaizabal bailaretatik Gaztelako tropenganaino.




ZUBIBARRIAGA. Zubi eder hau eta galtzada **Erdi Aroko autopista** haien oroigarri dira. Durangorantz zihoan hau, handik Urkiolan zehar Gasteizera jarraitzeko, eta Errioxatik Gaztelako goi-lautadaraino ailegatzeko. Ibilbide hau gaur egun **Arrainaren eta ardoaren ibilbide (GR-38)**, bihurtuta dago, eta bertako parte gara, beraz, bide zati honetan.

14* BISOI EUOPARRA (Mustela lutreola). Iheskorrak dira eta gauez ibiltzen dira. Horregatik da hain zaila haiek ikustea. Hala ere, jakin ezazue **Lea ibaiaren** ur gardenotan badirela bisoi europar talde batzuk. Natura 2000 Sarearen adierazleetako bat da bisoiaren presentzia, eta horrek esan nahi du Europako ibai gehienetan desagertu diren landare eta faunako espezieak maila onean gordetzen direla bertan. Inguru honekin errespetuz joka dezagun, holantxe zainduta segi dezan.




15* KUBO. XVI. Mendeko errota hau benetan bitxia da, inguruko errota guztiekiko desberdina delako bere eraikuntzan. Seguruenik, errota baino lehen **burdinola hidraulikoa** izango zelako. Historiaren joan-etorrian uraren aprobetxamendua zelan joan zen garatzen ikertzen dihardute arkeologoek. Haiantzako Lea ibaia **liburu** baten antzekoa ari da gertatzen. Bertoko ikerketan aurrera egin ahala, denboran eta espazioan kokatzen doa eskualde osoari aberastasuna eta aurrerabidea ekarri zion sekuentzia historikoa.



16* BENGOLA XIV. Bizkaian dokumentatu den burdinola zaharrenetakoa egon zen hemen, **XIV.** mendetik. Bertan, iragana etorkizunarekin lotuz, **Energia Berriztagarrien Parkea** eraikitzeko egitasmoa dago; modu didaktikoan energia hidraulikoa, eolikoa eta fotoboltaikoa agertuko dira, instalazio erakusgarrien bidez. Horra hor, etorkizuna, iraganaren aztarnak ageriak diren lekuan. Berrikuntzaren arau nagusia beteko dela dirudi: **“iraganaren gauza onak gordetzen jakitea”.**

17* DONE JAKUE BIDEA. Historia marraztu duten bi bide nagusien bidegurutzean zaudete: **Done Jakue** bidea, Goi Erdi Aroko kristautasunaren bidea, Ekialdetik Mendebaldera; eta Behe Erdi Aroan, esnatzen hasitako komertzio eta modernotasunaren bidea, **Gaztelatik Kantaurira**, Hegotik Iparrera... **XIV.** Mendean **hiribilduak** sortuko dira, eta ekonomiaren ibilbide hori sendotuko.





lea
IBARRA

Lea Ibarra

eUSKADI
espaini handia

BFA
DFB